

BREZNEV ABERTZALETASUNAREN ETSAI

Ez da oraingo kontua. Dakikezu-nez aspaldi honetan URSSek, bertako agintariek eta ingurukoek ez dute aberriaren nortasun eta eskubidea aintzakotzat hartu nahi izan. Bagenekien hori, eta gauzak onera ekarri beharrean oraindik gehiago gogortu direla ikusten dugu. Ez geuzen gauza hobirik espero. Vienatik. Ete berri emaita bulegoaren bidez. Breznev abertziak dirrela eta esandakoaren berri jaso augu. Sovietar agintariak bi kezka nagusi azaltzen ditu Almastan, Asia aldeko Kasajstan-go errepublikaren hiriburuan.



«URSS esozten duten herrialdeen arteko estabida eta borrorik —dio Leonidas Breznev— ez dugu inolaz ere onatuko. Izan ere gaurregun herrialde hauek ez dira es-tadu baten babespean bizi diren nazioak. Batasuna arras nabarmena da eta gutxiak nazio bat baino ez dute osatzen».

Hitz gutxitan gehiagorik esan ote zezakeen?

URSSek bere borroka bi frentetan, bi alderditan zuzendu nahi du. Afrikako opil gozoa ez luke alde batera bazterturik utzi nahi, baina batez ere Europar eta Asian indartu agertu nahi du.

Europari gogozkiolarik, ekonomia sendotzearen eta abar COMECON deritzan elkarte sorrarazi zuen. Pacto de Varsocia delakoa ere militar zeregintarako zutit irauten du. Binbitarte, Europa aurrera doa eta URSSek bere burua europar bezala agertzen duelarik ez luke trenik galdtu nahi.

Asian, berri, urruti samar, baina nahi baino hurbilago dago Txina aurrez aurre. Horregatik egin horretan bertan bigarrenez arazo honi lotuko zaio Breznev bere hitzaldian.

Prensak, hizparringiek, aldizkariak aspaldi honetan gogor ekin diote Txinaren aurkako kanpainari. Dirudienz erusooak ez daude batera konforme Txinako agintarien jokabideaz. Hauek inperialistatzat jotzen bait dute URSS.

Eztabaida honek izango dituen ondorenaz gauza asko esan daiteke. Baina gaurko honetan bere hitzaldian lehen parte, hemen jaso ditugun esaldien esan nahia dugu gogoan.

URSSen ere aberri arazoak konpontzeko inperialistek egin dutena martxan jarri dute. Herri horiek indarpean hartu, indarpean batasuna ezarri eta gero «de facto» lorturik dagoen batasun horrek hezur eta mami izan dezan ideologia baten bidez jendea horretara jarri. Dirudienz, gauzak ez dira konpondu,

besterik pentsatzen duenik eta besterik gogo duenik, federalismoa adibidez, badabil lanean. Horien aurka zuzendu ditu Breznev bere hitzak, batasun «monolitiko» degingo ote dioten bildurrez. Dirudienz, indarraren arrazoiaz baliatzen da oraindik.

Eta zer pentsa beste herrialdeetan ere beste horrenbeste egin nahi dutenen jokabideaz? Abertzale jendea irabaztearen aberria eta bere eskubideak aintzakotzat hartu izan dute. Baina ez dirudi puntu honetan URSSetik oso urruti dabil-tzanik.

Azken aldi honetan, ezer onurakortik lortzen ez dutela antz emanik auzpegiz aldatu ez baina antzaldatzen hasiak direla dirudi. Haurzia nola konpon? Burgesiaren gainegitura dela esan eta kito.

Gauzak, agian, ez dira hain sinpleak izango. Baina ibili ibilian horretara jotzen du askok.

Honenbestez, delako «ezkertiar» horien jokabidea salatzen dugula eta, ez dugu eskuindarra onartzen dugunik esan nahi. Baina hauek hobeki ezagutzen ditugulakoan nago.

Breznev eta jarraitzaileek ez dute, antza, diren bezala azaltzeko eragozpenik. Egintzetan abertzaleen etsai azaldu izan dira baina isilpean edo gordetzeko gogoia erakusten zuten. Zenbait zigortzerakoan beste aitzakiaren bat leporatuko zioten. Partiduen idazkari nagusia arji eta garbi mintzo zaigu. Donotzat hobe.

MIKEL UGALDE

GUDU SAINDUA BERRIZ

Ezer ez genekien arazo horretaz.

Baina «Le Monde Diplomatique»k lehendabizikok, eta Uztailaren 23ko «Le Monde»k segidan, munduan beste Gudu Saindu bat hasi dela jakinerazi digute. Asian oraingoan. Eta Guruzada berri horren bi aintzindari nagusiak hauek dira: Persiako «Shah» famatua, eta Pakistango Ali Bhutto diktadorea.

Gerard Viratellek artikulu luze bikain bat eskaini digu; eta honen idazpurratut, letra handitan, hau irakurri dugu: «SOUTENU PAR TEHERAN / LE PRESIDENT BHUTTO LUTTE CONTRE LA VOLONTE D'AUTONOMIE DU PEUPLE BALOUTCHE».

Zein dira Balutxak? Non da Balutxistan hori? Zerk elkartu ditu Teheran eta Islamabad hiriburuak? Viratelleri lot gakizkion.

Balutxak hiru erresumatan zatiturik bizi dira. Ekaldekko Balutxistan eskualdea (Quetta hiriburu), Pakistanan menpean dago; Iparraldekoa, Afghanistanan menpean; eta Mendekaldekoa, Persiaren menpean.

Balutxak, beraz, hiru partetan zatiturik daude, Kurdoak edo Mazedoniarrek bezala; eta nahiz, lurralde hedaduraz, Balutxistan oso herrialde zabala izan, Asiako arabera herri txikia da Balutxa jendetzaren aldetik. Viratelleri dionez, 2.400.000 Balutx dago Pakistango alderdian, eta beste hainbestetsu Persiakoan. Afghanistanan, berri, gehixeago dago, eta hiztunen kopuruz erresumako bigarren hizkuntza da balutxera.


Balutxistan eskualde idorra da; ugari ditu harriko eta legarrezko basamortuak; ura urri, tenperatura aldaketak bortitzegi; eta Balutxak oso sakabanaturik bizi dira horregatik talde eta leinu txikitak.

Orain dela urte batzuk matxinada bat gertatu zen Pakistango Balutxistanean, eta Islamabadetikako armadak odoletan ito zuen abertzale mogimendua. Balutxen zapalketa hiru antolatu zuen Tikka Khan jeneralak (gaur Pakistango Armadaren buru) izen hau lortu zuen sarraskian. «Balutxistango harakina».

Aurtengo Otsailaren 5an, Ali Bhuttok pikutara bota zuen 1970an lehenengo aldiz librok Balutxek berek hautatua zen Quettako Gobernu. Bizenjo, honen Lehendakaria, «separatista»tzat salatu zuten Islamabaden; eta, berorrek adierazi duenez, pakistandar hegazkinek ametraitatu egin zituzten basamortuetako Balutx taldeak.

Viratellek aurkeztutuz duenez, Bizenjo jauna ez da inolaz ere Balutx abertzale bat, pakistandar federalista batzik. Entzun dezagun: «Gure ustez —esan du Bizenjok— lau nazio daude Pakistanan: Balutx, Pathan, Pendjab eta Sindh; baina erresuma bakar bat: Pakistan. Berez-nahirik ez dago gagan... Guk autonomia eskatzen dugu Pakistango lau herrietazko».

Pakistanan, ordea, ez da batera ahaztu Bangladesh-en askatasun berria; eta militarrek batez ere



errotik erazi nahi dute Balutxen abertzale hazia.

Bhutto, horrela, laguntza bila, eta «etsai berbera»ren kontra burrukatu beharrik eraginda, Teheran-a joan da; eta hango Shah-rekin mintzatu ondoren, Balutxen kontrako Gudu Saindua hastea erabaki dute biek.

Hona hemen New York Times-en Shah-k esanak: «Gaur badago arazo nagusi bat: Pakistanen puska-rea aldebat hazterzea... Gutxienez, eta geure onetan gainera, babes-erasoaldi bat hasi behar dugu... Pakistan puskatuko baliz, Vietnamdar kutsuko egoera bat sor liteke gure lurraldeetan».

Islamabad-etik ikusirik, Quettako istiluek Balutxistango «jauntxo»en matxinadak dirudite; eskuindarrak, alegia. «Jauntxoek» «jauntxoeria» segi nahi denon legearen aurka...

Baina Teherango Shad ezin eskuindarragoa, Persepolis diru-xahuketa gaitzak eta enparantzako afusilaketa etengabeak antolatzen dituen berbera, ados dago Bhutto eskuindararekin tratua egin, eta Balutxistango... «eskuindarrak» zapaltzeko.

Herri zapatuen aurkako Gudu Sainduak ez baitira oraingoz bukatu.

LARESORO

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

- Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
- diruketa-saillean
- lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITEK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik audienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

- | | | | | |
|--------------|-----------------|------------|---------------|------------|
| Mondragoi | Zumarraga | Bilbo | Ernuma | Munguia |
| Aretxabaleta | Elgoibar | Legazpia | Eskorria | Yurre |
| Eiorri | Markina | Izarra | Izarra | Bermeo |
| Barakaldo | Bergara | Durango | Ondarrabia | Lasarte |
| Ondarroa | Aitsasua | Amorebieta | Galtzaraborda | Enenderian |
| Andoain | Eibar | Azpeitia | Lekettio | Santurce |
| Plazentzi | Tolosa | Ernani | Llodio | Zumaya |
| Oñati | Pasal San Pedro | Zarautz | Recaldeberri | Donostia |
| Ormaiztegi | Errederi | Sestao | Agurain | Iruña |
| Beasain | Billabona | Ordizia | San Andres | Deba |
| Gernika | Gazteiz | Antiguo | Azkoitia | Anzuola |

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B. Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGI
Zatuz gugana anuntzio honekin
eta KANARIAS-en baino merkeago
erosiko duzu zure erlojua

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI